


2008-10-25 arte...

Badugu data bat, su-etenaren hausturaz geroztik —eta ezker abertzalearen gaur eguneko ahots esanguratsua Espainiaren gatibu egonik— nondik nora zebilen sumatzen zaila zen gatazkaren norabidea asmatzeko.

Legebiltzarrean joko interesgarria egongo da ekainean, ordurako gauzak erabat nahasi ez badira. Datu erraz bat dago: 33-33 eta EHA-Kren esku balantza norantz alderatu. Hori guztia Zapaterok hauteskundeak irabaziko dituela-koan. Ez luke arazo handirik behar Zapaterok, ETaren oldarraren maila gogortuta ere. Su-etenaren sinesgarritasuna behar bazen, hausturaren sinesgarritasunak ere beharko du graduren bat igotzea, Espainiak serio hartuko badu, ekainetik orain artekoa zeinen apal joan den kontuan izanik. Ez da apologia kontua, PPK ere esan du haustura hitzarturen bat egon litekeela Zapaterok alde handiago irabazi eta prozesua berritzeko.

Interesgarria litzateke ikustea zein den Ibarretxeren jarrera, lehendakaria espetzeratzeko legea atzera ateratzeko gai den PP gobernura iritsita. Hor ere legea betetzeko egongo litzateke-eta. Baina orain bertan Zapaterok du irabazteko aukera gehien. Besterik da hispaniartasun borrokan noraino lerratzen den ikustea. Irabazi arren, litekeena baita datozen hileotan egingo dituen promesa



INIGO AZKONA

nazionalista espainolen menpe geratzea, inolako prozesurik ez abiatzeko.

Izan ere, klixe zaharrak astinduz joan da mundu guztia aspaldion. Autodeterminazioaren aldeko mozioak bozkatzegatik Ardantzaren gobernu bat hautsi zuten alderdikoek ez bairik gabe aitortuko dizute gaur planteamenduaren zilegitasuna. “Armarik gabe dena da posible” bezalako lelo etereoak zerabiltzatenak, erabat lekuz kanpo geratu dira aspalditik. Orain “armekin lortu ez dutena ez dute arma barik lortuko” eta “prezio politikoa” bezalakoak dira nagusi. Indartuta daude, eztabaidaren beldurrez, eta oihartzun mediatikoa duten klixeekin bakearen aldeko edonor kriminalizatzen. Bakeak botoak kentzen ditu eta nazionalismo hispaniar antiabertzaleak ematen berriz.

Erriberatik Atturrirainoko maparen eta Espainiari Euskal Herriaren aitortza eskatzearen aurretik, euskal herritarrok hala izan nahi dugula adierazi beharra ere argi geratu da. Eta denbora kontra doa. Galdeketak blokeoa hautsi lezake, baina posible da ekialdeko eta mendebaldeko gobernuak 25 urtean elkarrengandik urruntzeko egindako lanean are gehiago sakontzea ere, hizkuntza politikako sailburuordearen berba diplomatikoen erakutsi bezala. Konponbidea elkarrekin egon nahi dugun galdetzea dela jakin arren. ■

« ‘Armarik gabe dena da posible’

bezalako lelo etereoak

zerabiltzatenak kanpo geratu

dira. Orain ‘armekin lortu ez

dutena ez dute arma barik

lortuko’ eta ‘prezio politikoa’

bezalakoak dira nagusi

»

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Argitzen doazkigu. EAJren Alderdi Eguna alderdiena bilakatu zuten hizlariek. Josu

Jonek argi utzi zuen lehenago Bartzelonan esandakoa: botorik gabeko politikoa bezerorik gabeko entrepresa da. Ironikoki botatakoa Katalunian kopetilun Euskadin, komunikazio arauak aginduta. Eta garai bateko Arzallusen salaketa hura, mitxelina, ukatu nahi izan zuen bere jardunean. Gaikargaz baino gurpilez ari ote zen ez dut argi. Izan ere, Josu Joni ulertu diodanez, bere ustez EAJ atzeko trakzioko sisteman tradizio-motorea doala dirudi, eta aurreko gurpilak atzekoen mende dauzkala. Eta

Talaiak

berean Alonso eta Hamilton ematea bezalakoxea jo dute Josu Jonen asmoa. Ibarretxek bere aspaldiko alternatiba zehaztu du eta momentuz badirudi gurrupilik gabeko ibilgailuan dabilela: tiobibo-manexen antzera lekualdatze barik bueltaka, motorearen indarrari norabidea emateko laguntza bila. Auzoa behar du erakarri eta etxeko tiobibo-manexari Azkunaren erresistentzia irindu, zorabiatu ez dadin, eta bitartean guztia atzekoz aurrera jarri nahiko lizkioketen aurkakoen ahaleginak eragotzi. ■